



[Licencia de Freepik](#)

Oihalaren atzean

Musika, Teknologia eta Digitalizazioa, Gaztelania eta
Literatura

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. maila



Irakaslearentzako ikas-egoeraren gida

Inplikaturiko ikasgaiak

Musika, Teknologia eta Digitalizazioa, Gaztelania eta Literatura.

Saio-kopurua

18 saio (astean 2 ordu).

Ikas-egoeraren markoa

A. Testuingurua

Oso zabaldua dago opera aspergarria eta elitista delako ideia, eta jende askok baztertu egiten du ezagutu gabe. Baina opera helduentzako obra musikala baino askoz gehiago da, tresna hezitzaile bikaina da, zeinean arte musikal, plastiko, literario eta eszeniko guztiek bat egiten baitute beren adierazkortasuna eta edertasuna uztartuz.

Erritmo latinoek nerabeak bereganatu dituzten gizarte honetan, operaren adierazpen-intentsitateak aukera ugari eskaintzen ditu ikasleek giza ahotsa, musika-tresnak, balleta, pintura, dekorazioa, argiztapena, jantziak, makillajea eta libretoak ezagutu eta goza ditzaten eta beren sentsibiltate artistikoa gara dezaten.

Maite al daiteke ezagutzen ez dena? Ba al dago haien belarrietan oraindik tarterik genero eszeniko hori deskubritzeko eta aurreiritziak ezabatzeko? Uler daiteke eta ikasi operaz gozaten musika-klasean? Horra hor gure erronka.

B. Abiapuntua

Gure ikastetxeak OLBEren (Operaren Lagunen Bilboko Elkarte) programa didaktikoan parte hartuko du. Ikasleek operak eragiten dituen emozioak uler eta goza ditzaten, hirugarren hiru hilekoan egin beharreko bi jarduera sartu dira: opera baten muntaiari buruzko hitzaldi didaktiko bat eta Bilboko Euskalduna Jauregiaren *backstage*-aren ondorengo bisita gidatu bat, hitzaldiaren edukiak testuinguruan kokatzeko.

Musika-klasean etekina atera nahi diogu ekimen honi: opera zertan datzan, nola eta noiz sortu zen eta zer ezaugarri dituen aztertuko dugu, eta operan arte ederrak eta lanbideak nola uztartzen diren deskubritzen saiatuko gara, poesia, musika, dantza eta eszenografia-multzo bat sustatuz, non pintura, eskultura, zurgintza, ehungintza-arteak eta abar barne egongo lirartekeen. Opera nabarmen batzuetara hurbilduko gara, bertako pertsonaiak, tramak, egitura, interpreteak, opera horien sortzaileak eta antzezten diren munduko antzoki garrantzitsuenak ezagutzeko.

Martxoaren 8a gertu dagoela aprobeztatuz, XVIII. eta XIX. mendeetan emakumeak operetan zuen papera eta garaiko konbentzio sozialak aztertuko ditugu. Debate bat antolatzea erabaki dugu institutuan, gaur egungo gizarteko rol horiek konparazioz



aztertze. Eztabaida sortu eta guztion parte-hartzea sustatuko duen gidoi bat prestatu beharko dugu.

Nor izango da moderatzailea? Lortuko dugu irakasleek, ikasleek eta familiek parte hartzea? Online egin dezakegu? Nola jaso eta zabalduko ditugu ondorioak?

Ongi etorri ikuskizunera, oihala gora!

C. Azken ekoizpena

Genero-estereotipoek, operako gizarte-konbentzioek eta emakumezkoek XVIII. eta XIX. mendeetako gizartean izan zuten rolari buruzko eztabaida antolatzea, gauzatzea eta zabaltzea, eta gaur egungo egoerarekin alderatzea.

Proposamenaren justifikazioa

A. Proposamenaren xedea

Espiritu kritikoa eta iritzi estetikoa garatzea eta operak Mendebaldeko kulturean duen garrantzia ulertzea.

B. Argudiaketa kurrikularra

(Ikus taula).

C. Helburu didaktikoak

- Opera musika-generoari buruzko informazioa bilatzea eta hautatzea: jatorria, obrak, konpositoreak, egitura.
- Giza ahotsak entzumenez bereiztea.
- Opera baten zati garrantzitsuenak identifikatzea.
- Musika eta testua entzumenaren eta egituraren aldetik erlazionatzea.
- Eremu eszenikoarekin zerikusia duten lanbideak ezagutzea eta balioestea.
- Munduko antzoki garrantzitsuenak ezagutzea, baita musika- eta eszena-ondarea hedatzeko eta kontserbatzeko duten garrantzia ere.
- XVIII.-XIX. mendeetako operako gizarte-konbentzioak eta genero-estereotipoak aztertzea, haiei buruz hausnartzea eta eztabaidatzea, eta gaur egungo egoerarekin alderatzea.
- IKTak erabiltzea bideoak sortzeko, editatzeko, bistaratzeko eta elkarrekin komunikatzeko.
- Ikasgelan adierazpena, sormena eta ikasleen gaitasun artistikoa sustatzea.
- Opera-errepertorioaren aldakortasun handiaren erakusgarri bat aurkitzea.
- Lankidetzan egindako lan-proiektu bat planifikatzea, garatzea, zabaltzea eta ebaluatzea.
- Gure inguruko eskaintza artistikoa eta kulturala ezagutzea eta balioestea.

Argudiaketa kurrikularra

Funtsezko Konpetentziak	Deskrip-toreak	Konpetentzia espezifikoa k	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
MUSIKA				
HKK KE KD KPSII HK EK KAKK	1, 2 3 1, 2, 3 1, 1, 2 1, 3 1, 2, 3 .	<p>1. Produkzio musikal eta eszenikoek gizakiaren eta haren kulturaren garapenean izan duten funtzioa ezagutzea, haren eboluzioari buruzko hartze aktiboaren eta hausnarketa kritikoaren bidez, gizabanako bakoitzaren eta gizarte osoaren balioen eta sinesmenen testigantzan nola bihurtzen diren ulertzeko, hauen kontserbazioaren garrantzia baloratuz.</p> <p>2. Hainbat musika- eta eszena-adierazpenen ezaugarri garrantzitsuenak ezagutzea, gizartearen barruan dituzten elementuak eta asmoak aztertuz, interesa adieraziz eta ondarearen kultura aberastasunaren eta errespetoaren iturri gisa duen garrantziaren balioespena, norberaren pentsamendua eta kultura-identitatea garatzeko.</p> <p>3. Emozioen eta adierazpen musikalaren arteko erlazioa aztertzea, norberaren eta besteen iritzien bidez, eta ahots- musika-tresnen eta gorputz-inprobisazioen bidez, sormena eta jarrera kolaboratiboa garatzeko.</p>	<p>1.1. Produkzio musikal jakin batzuen inguruko faktore historikoak, kulturalak eta sozialak identifikatzea, horien ezaugarriak eta funtzioa ulertuz adibideen azterketaren bidez, eta genero-ikuspegia eta jarrera kritiko, ireki eta errespetuzkoa txertatuz.</p> <p>1.2. Euskal kulturaren eta beste kultura batzuen musika- eta eszena-ondarea kontserbatzearen garrantzia balioestea, proposamen diferentek ezagutuz, eta norberaren aberastea eta gizarte-kohesioa sustatuz.</p> <p>2.1. Euskal kulturaren eta beste kultura batzuen musika- eta eszena-adierazpenak balioestea, analisi eta hartze aktibo, errespetuzko eta inklusiboaren bidez, horiek sortu ziren gizartearen islatzat hartuz.</p> <p>2.2. Gure kulturaren eta beste batzuen musika-proposamenen ezaugarri, elementu eta teknika garrantzitsuenak identifikatzea, ikus-entzunezko euskarrien bidez, irekitasun-, interes- eta errespetu-jarrera agerian utziz.</p> <p>3.1 Ideiak, sentimenduak eta emozioak errespetuz, enpatiaz eta sentikortasunez adieraztea, musika-ekitaldiak entzunez, ikusiz edo horietara joanez.</p>	<p>A. Musika entzutea eta hautematea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tokiko, eskualdeko, nazioko eta beste toki batzuetako konpositoreak, artistak eta taldeak: zuzeneko eta erregistratutako ekitaldi eta adierazpen artistiko-musikalen eta eszenografikoen azterketa. * - Euskal Herriko eta beste toki batzuetako sortzaileek egindako musika- eta dantza-proposamenak: historian zehar izan dituzten ezaugarri garrantzitsuenen entzutea, azterketa, deskribapena eta balorazioa. - Musikaren funtsezko elementuak: erritmoa, melodia, harmonia, testura, forma eta musika generoak. - Musika-arloari lotutako hiztegi espezifikoa. Ezagutza eta erabilera. . -Tresna digitalak eta musika. . -Musika-harrerako oinarrizko portaera-arauak: errespetua eta balorazioa musika argudioetan oinarrituta. <p>B. Interpretazioa, inprobisazioa eta sorkuntza eszenikoa.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jabetza intelektuala eta kulturala: Lizentzia motak. Planteamendu etikoak eta arduratsuak. Egile eskubideen errespetua eta pribatasuna. - Musika-jardueretan portaerako eta parte hartzeko arauak. Besteen produkzioekiko errespetuzko eta diskriminaziorik gabeko jarrera. - Oinarrizko emozioen autorregulazioa. Autokonfiantza eta segurtasuna norberarengan. <p>C. Musika-testuinguruak eta -kulturak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskal Herriko eta beste toki batzuetako musika- eta dantza-tradizioak, kultura- eta genero-aniztasuna. Taldekatze nagusiak: ezaugarriak eta funtzioak. -Mendebaldeko musikaren eta dantzaren historia: aldiak, ezaugarriak, generoak, ahotsak, musika-tresnak eta taldekatzeak

GAZTELANIA ETA LITERATURA				
HKK KE STEM KD KPSII EK	<p>1, 5</p> <p>2</p> <p>2, 3</p> <p>1, 3, 4, 5</p> <p>1, 2, 3, 4, 5</p> <p>1</p>	<p>3. Ahozko testuak eta testu multimodalak jariatutasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz sortzea, diskurtso-generoen berezko konbentzioei jarraituz, eta ahozko elkarreraginetan jarrera kooperatiboz eta errespetuz parte hartzea, bai ezagutzak eraikitze eta lotura pertsonalak ezartzeko, bai gizarte-testuinguruetan modu aktiboan eta informatuta parte hartzeko.</p> <p>5. Testu idatzi eta multimodal koherenteak, kohesionatuak, egokiak eta zuzenak sortzea, hautatutako diskurtso-generoaren berezko konbentzioei jarraituz, ezagutza eraikitze eta komunikazio-eskaera zehatzei modu informatuan, eraginkortasunez eta sormenez erantzuteko.</p>	<p>3.1. Zenbait plangintza-mailatako interes pertsonaleko eta gizarte- eta hezkuntza-intereseko gaiei buruzko ahozko narrazio eta azalpen errazak sortzea, diskurtso-generoen berezko konbentzioei jarraituz, jariatutasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz, zenbait euskarritan, eta hitzeko baliabideak eta hitzik gabekoak eraginkortasunez erabiliz.</p> <p>3.2. Modu aktibo eta egokian parte hartzea ahozko elkarreragin informaletan, talde-lanean eta elkarrizketa moduko ahozko egoera formaletan, errespetuzko entzute aktiboko jarreraz eta elkarrizketa-kooperazioko eta hizkuntza-kortesiako estrategiez, betiere erabilera diskriminatzaile eta sexistak saihestuz, baita ingurune digitaletan ere.</p> <p>5.1. Testu idatzi eta multimodal errazen idazketa planifikatzea, komunikazio-egoera, hartzailea, helburua eta kanala kontuan hartuz; zirriborroak idaztea eta berrikustea, berdinaren arteko elkarrizketaren eta kontsulta-tresnen laguntzaz; eta azken testu koherente eta kohesionatua aurkeztea, erabilera sexista eta diskriminatzailek gabeko erregistro egokiz.</p> <p>5.2. Testuak aberasteko oinarriko prozedurak txertatzea, diskurtso-, hizkuntza- eta estilo-alderdiak kontuan hartuz, zehaztasun lexikoz, zuzentasun ortografiko eta gramatikalez, eta erabilera sexista eta diskriminatzailek gabeko hizkuntza librez, bai ingurune analogikoetan bai digitaletan.</p>	<p>B. KOMUNIKAZIOA.</p> <p>Produktzioa. :</p> <p>-*Informazioa bilatzearekin, testuinguruan kokatzearekin eta berrikusteearekin lotzen diren ahozko produktio formalerako eta sormenezko produktiorako estrategiak. Audientziaren eta esposizio-denboraren araberako egokitzapena. Hitzekoak ez diren elementuak. Ahozkotasun formalaren diskurtso- eta hizkuntza-ezaugarriak.</p> <p>- *Pentsamendua antolatze eta emozioak kudeatzeko idazketaren erabilera: idazketa automatikoa, oharrak hartzea, eskemak, buru-mapak, antolatzaile grafikoak, definizioak, laburpenak, eta abar. .</p> <p>- *Pentsamendua antolatze eta emozioak kudeatzeko idazketaren erabilera: idazketa automatikoa, oharrak hartzea, eskemak, buru-mapak, antolatzaile grafikoak, definizioak, laburpenak, eta abar.</p> <p>Elkarreragina</p> <p>- *Ahozko eta idatziko elkarreragin informalerako estrategiak, testuinguru analogikoetan eta digitaletan: hitza hartzeko eta hitza uzteko estrategiak.</p> <p>-*Elkarrizketa-kooperazioa eta hizkuntza-kortesia; entzute aktiboa, asertibitatea eta gatazken elkarrizketa bidezko kudeaketa, genero-ikuspegitik.</p>

TEKNOLOGIA ETA DIGITALIZAZIOA			
KE	2	6. Ikaskuntza-ingurune digitaleko ohiko gailu eta aplikazioen funtzionamenduaren oinarriak ulertzea, haien osagaiak eta funtzioak analizatuz eta bere beharretara egokituz, haien modu efiziente eta seguruagoan erabiltzeko eta problema tekniko errazak hautemateko eta ebazteko.	<p>1. Egunero erabiltzen diren gailu digitalak modu efiziente eta seguruan erabiltzea problema errazak sormenez ebaztean eta askotariko elementu teknologikoak maneiatzean, osagaiak eta komunikazio-sistemak analizatuz, arriskuak ezagutzuz eta datuak eta ekipamenduak babesteko segurtasun-neurriak hartuz.</p> <p>2. Edukiak sortzea, materialak lantzea eta zenbait plataformatan ezagutzera ematea, ikaskuntza-ingurune ohiko tresna digitalak behar bezala konfiguratzuz, beren beharretara egokituz eta egile-eskubideak errespetatuz.</p> <p>3. Informazioa modu egituratuan antolatzea, datuen biltegitratze seguruko teknikak aplikatuz bai gailu lokaletan bai hodeian.</p>
KD	2, 4, 5		<p>B. Ideien komunikazioa eta zabalkundea</p> <p>- Proiektuei buruzko dokumentazio tekniko eta multimedia-informazioa lantzeko, argitaratzeko eta ezagutarazteko tresna digitalak. Urruneko inguruneko komunikazioa.*</p> <p>D. Ikaskuntza-ingurune pertsonalaren digitalizazioa</p> <p>- Edukiak sortzeko eta editatzeko tresnak. * Instalazioa, konfigurazioa eta erabilera arduratsua. * Jabetza intelektuala. * Informazioa tratatzeko, antolatzeko eta segurtasunez biltegitratzeko teknikak. * Babeskopiak.</p>
KPSII	4, 5		



Jardueren sekuentzia laburra eta ebaluazio-adierazleak (irakasleentzat)

A. Hasierako fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
1. Zer dakigu operaz?	<ul style="list-style-type: none"> - Solasaldian aktiboki hartzen du parte. - Gaiarekiko interesa erakusten du. - Besteen iritziak errespetatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gelako batzarraren behaketa-eskala. (1. eranskina)

B. Garapen-fasea (errenkan edo taulan)

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
2. Operaren historia lerro batean. (Teknologia eta Digitalizazioa irakasgaiarekin koordinatutako jarduera).	<ul style="list-style-type: none"> - Talde txikian duen rola onartzen eta betetzen du. - Jarduerarekiko interesa erakusten du eta aktiboki parte hartzen du. - Zeregin digitala egiten du eta besteekin partekatzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Errubrika: denboralerroa. (2. eranskina) - Koaderno digitala. (5. eranskina) - Gelako batzarraren behaketa-eskala. (1. eranskina) - Taldearen kontrol-orria. (3. eranskina. Irakaslea) (4. eranskina. Ikasleak)
3. La Traviataren argumentua, pertsonaiak eta egitura.	<ul style="list-style-type: none"> - Talde txikian duen rola onartzen eta betetzen du. - Jarduerarekiko interesa erakusten du eta aktiboki parte hartzen du. - Zeregin digitala egiten eta besteekin partekatzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Datuak biltzeko fitxa. - Taldearen kontrol-orria. (3. eranskina. Irakaslea) (4. eranskina. Ikasleak) - Koaderno digitala. (5. eranskina) - Gelako bloga.
4. Testua eta musika, eta bakarlarria eta korua erlazionatzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Talde txikian duen rola onartzen eta betetzen du. - Jarduerarekiko interesa erakusten du eta aktiboki parte hartzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Datuak biltzeko fitxa. - Taldearen kontrol-orria. (3. eranskina. Irakaslea) (4. eranskina. Ikasleak)
5. La Traviataren libretoaren argumentuari	<ul style="list-style-type: none"> - Kritikoki argudiatzen ahalegintzen da. - Testuaren edukia ulertzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Koaderno digitala. (5. eranskina) - Gelako bloga.



<p>buruzko hausnarketa kritikoa. (Hizkuntza eta Gaztelania irakasgaiekin koordinatutako jarduera)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Musikaren eta testuaren arteko loturak ezartzen ditu. - Zeregin digitala egiten du eta besteekin partekatzen du. - Argudio-testua egiten du eta bere koaderno digitalean sartzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Argudio-testua ebaluatzeko errubrika. (6. eranskina)
<p>6. Eszenografia eta atrezzoaren operan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Talde txikian duen rola onartzen eta betetzen du. - Jarduerarekiko interesa erakusten du eta aktiboki parte hartzen du. - Zeregin digitala egiten eta besteekin partekatzen du. - Bere lan pertsonala besteei komunikatzeko gaitasuna du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Taldearen kontrol-orria. (3. eranskina. Irakaslea) (4. eranskina. Ikasleak) - Koaderno digitala. (5. eranskina) - Gelako bloga.
<p>7. <i>Così fan tutti</i> operaren argumentua, pertsonaiak eta egitura. 8. Zein bertso gustatzen zaizu gehien?</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Talde txikian duen rola onartzen eta betetzen du. - Jarduerarekiko interesa erakusten du eta aktiboki parte hartzen du. - Zeregin digitala egiten eta besteekin partekatzen du. - Bere gogoetak errespetuz eta enpatiaz argudiatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Datuak biltzeko fitxa. - Taldearen kontrol-orria. (3. eranskina. Irakaslea) (4. eranskina. Ikasleak) - Gelako bloga.
<p>9. Giza ahotsen sailkapena eta ezaugarriak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Jarduerarekiko interesa erakusten du eta aktiboki parte hartzen du. - Adi entzuten saiatzen da. - Giza ahotsak behar bezala sailkatzen ditu. - Bere gogoetak gainerako ikaskideekin partekatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Taldearen kontrol-orria. (3. eranskina. Irakaslea) (4. eranskina. Ikasleak)
<p>10. Aria.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Adi entzuten saiatzen da. - Jarduerarekiko interesa erakusten du eta aktiboki parte hartzen du. - Zeregin digitala egiten du eta besteekin partekatzen du. - Bere gogoetak errespetuz eta enpatiaz argudiatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Taldearen kontrol-orria. (3. eranskina. Irakaslea) (4. eranskina. Ikasleak) - Datuak biltzeko fitzak. - Gelako batzarraren behaketa-eskala. (1. eranskina)



<p>11. Eta zuk, zer deritzozu?</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Talde txikian duen rola onartzen eta betetzen du. - Jarduerarekiko interesa erakusten du eta aktiboki parte hartzen du. - Bere gogoetak errespetuz eta enpatiaz argudiatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Taldearen kontrol-orria. (3. eranskina. Irakaslea) (4. eranskina. Ikasleak) - Gelako batzarraren behaketa-eskala. (1. eranskina).
<p>12. Nola erlazionatzen gara?</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Adi entzuten saiatzen da. - Jarduerarekiko interesa erakusten du eta aktiboki parte hartzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gelako batzarraren behaketa-eskala. (1. eranskina) - Taldearen kontrol-orria. (3. eranskina. Irakaslea) (4. eranskina. Ikasleak)
<p>13. Finalea. 14. Duetoa. 15. Errezitatiboa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Adi entzuten saiatzen da. - Jarduerarekiko interesa erakusten du eta aktiboki parte hartzen du. - Errezitatiboaren eta ariaren arteko aldea ulertzen du. - Ataza egin eta koaderno digitalera igotzen du. - Originaltasuna eta sormena erakusten ditu bere lanaren azalpenetan. - Gaiari buruzko argudio kritikoak ematen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gelako batzarraren behaketa-eskala. (1. eranskina) - Koaderno digitala. (5. eranskina)
<p>16. Opera-antzokiak. (Teknologia-Digitalizazioa irakasgaiarekin koordinatutako jarduera)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Jarduerarekiko interesa erakusten du eta aktiboki parte hartzen du. - Talde txikian duen rola onartzen eta betetzen du. - Zeregin digitala egiten du eta besteekin partekatzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gelako batzarraren behaketa-eskala. (1. eranskina) - Taldearen kontrol-orria. (3. eranskina. Irakaslea) (4. eranskina. Ikasleak) - Poster digitala ebaluatzeko errubrika. (7. eranskina)

C. Azken fasea

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
----------	-----------------------	-------------------



<p>17. Debatea. Eta zu, zeren alde zaude?</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Jarduerarekiko interesa erakusten du eta aktiboki parte hartzen du. - Talde txikian duen rola onartzen eta betetzen du. - Zeregin digitala egiten du eta besteekin partekatzen du. - Bere gogoetak errespetuz eta enpatiaz argudiatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Datuak biltzeko taula. - Gelako batzarraren behaketa-eskala. (1. eranskina). - Taldearen kontrol-orria. (3. eranskina. Irakaslea) (4. eranskina. Ikasleak)
<p>18. Debaterako gaiak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Jarduerarekiko interesa erakusten du eta aktiboki parte hartzen du. - Talde txikian egokitutako rola hartzen eta betetzen du. - Zeregin digitala egiten du eta besteekin partekatzen du. - Bere gogoetak errespetuz eta enpatiaz argudiatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Datuak biltzeko taula. - Gelako batzarraren behaketa-eskala. (1. eranskina) - Taldearen kontrol-orria. (3. eranskina. Irakaslea) (4. eranskina. Ikasleak)
<p>19. Lan-gidoia definitzea.</p> <p>20. Zereginak banatzea eta gure artean koordinatzea. (Teknologia-Digitalizazioa irakasgaiarekin koordinatutako jarduera)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Jarduerarekiko interesa erakusten du eta aktiboki parte hartzen du. - Zereginen banaketan akordioak lortzen ahalegintzen da. - Talde txikian egokitutako rola onartzen eta betetzen du. - Sormena eta originaltasuna erakusten ditu egiten dituen proposamenetan. 	<ul style="list-style-type: none"> - Datuak biltzeko taulak. - Gelako batzarraren behaketa-eskala. (1. eranskina). - Taldearen kontrol-orria. (3. eranskina. Irakaslea) (4. eranskina. Ikasleak)
<p>21. Debatea. (Teknologia-Digitalizazioa irakasgaiarekin koordinatutako jarduera)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Aktiboki hartzen du parte esleitutako zereginak garatzen. - Zailtasunak eta arazoak konpontzen laguntzen du. - Bere iritziak errespetuz eta enpatiaz argudiatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gelako batzarraren behaketa-eskala. (1. eranskina)
<p>22. Egindako lana baloratzea eta ondorioak ateratzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gogoeta kritikoa egiten du eta eztabaidaren alderdi positiboak eta hobetu daitezkeenei buruz dituen iritziak partekatzen ditu. - Etorbizunean beste transferentzia-jarduera batzuk 	<ul style="list-style-type: none"> - Datuak biltzeko taulak. - Gelako batzarraren behaketa-eskala. (1. eranskina). - Taldearen kontrol-orria. (3. eranskina. Irakaslea)



	<p>hobetzeko proposamenak egiten ditu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Besteen kritikak eta proposamenak onartzen ditu. 	<p>(4. eranskina. Ikasleak)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Azken produktua ebaluatzeko errubrika. (8. eranskina)
<p>23. Bakarkako ebaluazioa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Hausnarketa kritikoa egiten du, lan kolektiboari egiten dion ekarpenari buruz. - Ikas-egoeran lortutako ikaskuntzak definitzen ditu. - Antzeko egoeretan ikaskuntzak transferitzeko prestasuna erakusten du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Koaderno digitala. (5. eranskina) - Taldearen kontrol-orria. (3. eranskina. Irakaslea) (4. eranskina. Ikasleak) - Autoebaluazioa eta koebaluazioa. (9. eranskina)

Metodologia

A. Printzipioak

Ikas-egoera hau planifikatzean, ikasleek gaiari buruz dituzten aurretiazko ezagutzak eta interesak hartuko ditugu oinarritzat. Gela bakoitzean, informazioa bilatzeko, entzuteko, hausnartzeko eta abarrerako jarduerak egingo ditugu, edozein entzumen-edo ikus-formatutan. Lan-dinamika egonkorra izango dugu, baina malgua, sortzen diren beharretara egokitua betiere. Talde handia saioaren hasieran eta amaieran bilduko da, lan-dinamika adosteko eta baloratzeko.

Ikasleak dira ikaskuntzaren erdigunea. Erabakiak hartzean, iritzi estetikoak lantzean eta iritzi kritiko pertsonala eratzean, haien autonomia eta autorregulazioa sustatuko dira.

Guztiak lortu beharko dituzte erronkak. Parte hartzeko prozesuak errazteko, jarduerak ikasleen beharretara eta berezitasunetara egokituko dira, ikasleen irudikapenerako, aurkezpenerako, zereginak gauzatzeko eta inplikaziorako bitarteko ugari eskainiz, betiere zereginei hezkuntza-erantzuna ematen saiatuz. IDU metodologiaren printzipioak aplikatuko dira eta IKT tresnen erabilera integrala eta esanguratsua bultzatuko da.

Une oro, berdinen arteko harremanak zainduko ditugu, bizikidetza positiboa funtsezkoa baita ikaskuntza-prozesuan. Arreta berezia jarriko zaio hizkuntzaren erabilera egokiari, oro har komunikazioa eta bereziki ideien, sentimenduen eta emozioen adierazpena errazteko.



B. Antolakuntza

Lana taldetan egingo da. Talde handia edo gelako batzarra arbel digitalaren edo pantailaren inguruan bilduko da, lau pertsonako talde kooperatiboetan egindako jarduerak bateratzeko, akordioak lortzeko, entzunaldi eta hausnarketa kolektiboak egiteko, etab. Talde kooperatiboetan egitura sinpleak erabiliko dira: “1-2-4”, “arkatzak erdira”, “irakurketa partekatua”, “folio birakaria”, etab., eta kide bakoitzaren rola errespetatuko dira.

Jarduera batzuk digitalizazioko eta hizkuntzako irakasleekin koordinatuko dira. Batzuetan, ikastetxeko beste gune batzuk eta taldeak erabili ahal izango dira jarduera horietarako.

C. Baliabideak

- Proiektorea, PCa eta musika-gelako musika-tresnak.
- Klasean dagoen material suntsikorra.
- Ikasleek ekarritako material suntsikorra.
- Ikasleek duten *crombook-a*.
- Google Workspace-ko aplikazio batzuk.
- Ikastetxeko askotariko espazioak: areto nagusia, liburutegia...
- Klasean dagoen kanoia, informazioa eta irudiak proiektatzeko.

Ebaluazio-prozesua

Ebaluazioa hezigarria, jarraitua eta gaitasunetan oinarritua izango da. Hezkuntza-prozesua baloratzeko eta egokitzeke, hobekuntza-neurriak hartzeko eta gertatzen diren ikaskuntzen ebidentziak jasotzeko balioko du. Ikasleen gaitasunetara egokituko da, eta hasieratik adostuko dira ebaluazio- eta kalifikazio-irizpideak.

Hasieran, ebaluazio diagnostiko bat egingo da, ikaskuntza-egoeraren programazioa ikasleen beharretara, interesetara eta itxaropenetara egokitzeke. Garapen-fasean, ikasleen aurrerapena, beharrak eta jarrera aztertuko ditugu.

Azken fasean, ekoizpen bat egingo da, non egindako ikaskuntza guztiak integratuko eta transferitu direla egiaztatuko den. Ebaluazioa egiteko (autoebaluazioa, koebaluazioa, taldearen ebaluazioa, etab.), hainbat tresna erabiliko dira:

- Gelako batzarraren behaketa-eskala.
- Talde-lanaren kontrol orriak.
- Hizkuntza- eta digitalizazio-jarduerak baloratzeko errubrikak.
- Koaderno digitala ebaluatzeko errubrika.
- Autoebaluaziorako eta koebaluaziorako errubrikak.



- Azken produktua ebaluatzeko errubrika.

Ikasleek tresnak ezagutuko dituzte eta irakaslearekin adostuko dute azken kalifikazioan duten pisua.



Jardueren sekuentzia garatua (ikasleentzat)

1. Jarduera. Zer dakigu operaz?

Opera musika-genero nagusia izan da luzaroan. Masa-komunikabideak garatu aurretik, jendea antzokietara joaten zen eta opera nonahi zegoen. Gure inguruan zaletasun handia dago, eta hainbat erakundek ahalegina egiten dute generoa jendearengana hurbiltzeko, baina arrazoi ugari direla medio, belaunaldi gazteena mundu honetatik urrun dago. Guk guztion interesa bereganatu nahi dugu, oztopoak eta aurreiritziak hautsi. Hori izango da gure helburua.

Ikas-egoera honetan, ibilbide labur bat egingo dugu: opera-generoaren alderdi garrantzitsuenak ezagutuko ditugu, eta ikerketa- eta entzumen-jarduerak egingo ditugu. Bukaeran, debate bat antolatuko dugu honako hau hizpide hartuta: gizarte-konbentzioak, eta emakumeak operan duen papera eta gaur egungo egoeran duen zeregina. Horretarako, lau pertsonako talde kooperatiboetan egingo dugu lan, zereginak banatuko ditugu, eta eztabaida gidatuko eta zabaldu egingo dugu.

Lehenengo jarduera honetan, lehenengo, operari buruz ditugun ezagutzak ekarriko ditugu gogora, eta, ondoren, jakingo dugu zein diren ikas-egoeraren helburuak, zer jarduera egin beharko diren, nola garatuko ditugun eta nola ebaluatuko ditugun.

Has gaitezen ikasgelan bateratze-lan bat egiten, gaiari buruzko aurretiazko ezagutzak aktibatzeko. Hona hemen gogoeta egiteko zenbait ideia:

- Zer dakigu operaz?
- Opera helduentzako ikuskizun aspergarriztat hartzen dugu? Zergatik?
- Ezagutzen al duzue kantariren bat?
- Ezagutzen al duzue munduko antzoki handiren baten izena?
- Zer lanbide ezagutzen dituzue arte eszenikoarekin lotuta?
- Entzun al duzue gure inguruko opera-jaialdirik?



Hausnartzen ari garen bitartean, opera-zati batzuk entzungo ditugu. Alderdi deigarriak hobeto ezagutu nahiko genituzkeenak komentatuko ditugu guztion artean: pertsonaiei, kantariei, gaiei, eszenaratzeari buruz sortzen diren zalantzak eta galderak izango ditugu hizpide.



<i>Txirula Magikoa</i> (W.A. Mozart): Gaueko erregina (3'05'')	
<i>Rigoletto</i> (G. Verdi): La Dona e Mobile (L.Pavarotti) (2'50'')	
<i>Carmen</i> (G. Bizet): Martxa eta korua (TOREATZAILEA) (3'38'')	

Amaitu aurretik, ikasgelako batzarrean jasoko ditugu ondorioak. (1. eranskina)

2. Jarduera. Operaren historia lerro batean

Opera da hitzak eta musika uztartzen dituen antzezpena. Musikak ekartzen dizkigun sentimenduek, hitzei lotutakoek, askoz ere emozio sakonagoak pizten dizkigute. Hitzek mezuaren alderdi arrazionala transmititzen digute, eta musika sentimenduen hizkuntza da. Operan, gure bizitzan bizi ditugun emozioak islatzen dira (jeloskortasuna, maitasuna, traizioa, adiskidetasuna, beldurra...) Pertsonaiekin identifikatzen garenean eta bizi dituzten egoeretan laguntzen diegunean, geure burua ezagutu dezakegu. Horrela, sentitzen duguna adierazteko bitarteko baliotsua bihurtzen da opera, eta gure emozioetan inpaktatzeko duen gaitasun izugarriak gozamen biziko uneak ematen dizkigu. Hori dela eta, jende asko maitemindu egiten da ikuskizun bikain honekin.

Gure ikasgelan, operaren historia ikusteko, "alegiazko palko bat" antolatuko dugu: hainbat garaitan jaiotzen, hazten eta eraldatzen ikusiko dugu. Bere istorioa **denbora-lerro baten bidez** kontatuko dugu. Kontua ez da obra, konpositore eta abarren zerrenda zehatza egitea, historian zehar izandako aldi eta opera adierazgarrienen deskribapena lantzea baizik.

Has gaitezen bideo hau ikusten ataza kokatzeko:



<https://www.youtube.com/watch?v=0F9AHmACDWA>

Jarraian, informazioa bilatzeko estekak ditugu:

GARAIAK	Beste esteka interesgarri batzuk:
<ul style="list-style-type: none"> • Operaren hastapena. • Operaren hedapena Europan • Opera bufaren hastapenak eta. Opera Barroca • Operaren erreforma • Klasizismoa operan • XIX. mendeko opera Italiana • Alemaniako opera. • Opera Frantsesa. • Errusiar opera • Opera Modernoa 	<ul style="list-style-type: none"> • Operaren historia, jatorritik musikaletara • OPERAREN HISTORIA LABURRA • Operaren historia • Musikaren bilakaera

Denbora-lerroa egiteko, ikasleak lauko taldetan banatuko ditugu. Talde bakoitzak goian adierazitako garaietako gertakari edo obra adierazgarri bat aukeratuko du, ondoren Teknologia eta Digitalizazio irakasgaiari jarduerara osatzeko. Gogoraziko diegu zein rol dagokion taldeko kide bakoitzari.

<p>Koordinatzailea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zereginak ezagutzen ditu eta talde osoa horietan inplikatzeko du. - Lanak banatu eta antolatzen ditu. - Guztiei entzuten die, eta berak esandakoa besteek entzutea lortzen du. - Helburuak betetzen direla ziurtatzen du. - Bakarkako eta taldeko jarduerak koordinatzen ditu. - Ebaluazio-uneak koordinatzen ditu. 	<p>Bozeramailea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gainerako taldeei egindako lanak aurkezten dizkie. - Taldearen zalantzak irakasleari galdetzen dizkio. - Irakasleen galderei erantzuten die.
<p>Kudeatzailea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Besteen iritzia entzun eta 	<p>Idazkaria</p> <ul style="list-style-type: none"> - Beharrezko material guztia edukitzeaz



<p>errespetatzen direla eta taldeko portaera-arauak betetzen direla bermatzen du.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Guztion parte-hartzea bultzatzen du. - Lanak ezarritako epean egiteko denbora eta aurkezpena kontrolatzen ditu. - Informazioa bilatzeaz arduratzen da. - Azken helburuak lortzeko proposamenak, ideiak eta abar antolatzen ditu. 	<p>eta gordetzeaz arduratzen da.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Egin gabe dauden zereginak eta taldeko zein bakarkako konpromisoak gogorarazten dizkie taldekideei. - Taldearen ondorioak kontuan hartzen ditu. - Azken produktuaren zereginak laburbiltzen ditu, eta ekoizpenari kohesioa ematen dio.
---	---

Denbora-lerroak taldekide bakoitzaren koaderno digitalean sartuko dira, eta gelako ikasle guztiekin partekatuko dira gelako blogean. (2., 4. eta 5. eranskinak)

3. Jarduera. La Traviataren argumentua, pertsonaiak eta egitura

La Traviata (G. Verdi). Opera honen argumentua, pertsonaiak eta egitura formala aztertuko ditugu.

Bideo adierazgarri bat ikusiko dugu: "Brindisaren eszena"

[Brindisa, Acto I. Libiamo ne' lieti calici](#) (Alfredo eta Violetta)



Lauko taldetan, Interneten informazioa bilatuko dugu honako hauei buruz:

- Ekintza gertatzen den lekua eta garaia
- Argumentuan parte hartzen duten pertsonaiak
- Haien artean sortzen diren harremanak
- Obraren *aktoak* eta *zenbakiak*

Eta taula hau osatuko dugu:

LEKUA ETA GARAIA	PERTSONAIAK	HAIEN ARTEKO ERLAZIOAK	EGITURA

Inork ezagutzen al zuen eszena hau? Ikasgelako batzarrean, ikusitakoari eta bildutako datuei buruzko iritziz guztiak komentatu ditugu guztion artean. (4. eta 5. eranskinak)



4. Jarduera. Testua eta musika, eta bakarlaria eta korua erlazionatzea

Operaren zati adierazgarri bat entzungo dugu. Ondoren, testuaren eta musikaren artean, eta bakarlariaren eta koruaren artean dagoen lotura aztertuko dugu.

Parisen, Violettak luxuzko festa bat egiten du bere egongelan, gaixotasun bat sendatzen ari dela ospatzeko. Alfredo Germont festara iritsi den azkenetako bat da. Aspaldi ezagutu nahi zuen, isilpean maiteminduta baitago. Honek topa egiten du gonbidatuaren aurrean bere kopa altxatuz. Violettak bere brindisarekin erantzuten dio, eta bertaratutakoek oihu egiten diete.



Brindis Acto I. Libiamo ne' lieti calici (Alfredo eta Violetta)



Hauxe da ikusi eta entzun berri dugun eszenako testua:

ALFREDO
Edan dezagun edalontzi honetatik alai
Edertasunez distiratsua
Eta ordu laburra
Atseginez horditzen da.
Edan dezagun dardara gozoarekin
Maitasunak pizten duela
Zeren begi eder hauek
Bihotza zeharkatzen digute.
Edan dezagun ardoa delako
Maitasunaren musuak piztuko ditu.
GUZTIAK
Edan dezagun ardoa delako
Maitasunaren musuak piztuko ditu.

Orain, lauko taldetan, testua irakurriko dugu, esanahia ulertzeko. Galdera batzuen laguntzaz, testua, musika eta pertsonaien mugimendu eszenikoa nola elkartzen diren ikusiko dugu. Gure inpresioak kontatuko ditugu. Ondoren, testuaren eta musikaren, eta bakarlariaren eta koruaren arteko harremana aztertuko dugu guztion artean. (4. eta 5. eranskinak)

Datuak biltzeko taula.



Aztertu beharreko alderdiak	Taldearen ondorioak
Testuaren edukiak berresten al du musikaren izaera?	
Nola islatzen da testuaren eta musikaren konbinazioa ekintza dramatikoaren garapenean?	
Musikak parte hartzen al du eszenan transmititu nahi den emozioan?	
Orkestraren parte-hartzeak eszenatokian giro emozionala sortzen laguntzen du ala abeslariari laguntzen die besterik gabe?	
Nola laguntzen diote musikak eta testuaren edukiak pertsonaien mugimendu eszenikoari?	
Beste batzuk...	

5. Jarduera. La Traviataren libretoaren argumentuari buruzko hausnarketa kritikoa

Konbentzio sozialen ondorioz, Alfredoren aitak Violetтари semea uzteko eskatu zion, berarekin zuen harremana familiaren izen onarentzat desohorea delako. Alfredorekin hausteak Violettaren gaixotasuna larriagotzen du, azkenean hil arteraino.



Uste al duzu gaur egun ere, mende eta erdi baino gehiago igaro ondoren, konbentzio sozialek presio egiten jarraitzen dutela pertsonen bizitzan? Existitzen direla uste baduzu, jar ezazu ezagutzen duzun adibide bat.

Egoera hori lehen entzun dugun atalean nola islatzen den aztertuko dugu. Gaztelaniazko klasean, ikasleek **argudio-testu bat** idatziko dute. Lana koaderno digitalera igoko dute. (6. eranskina).



6. Jarduera. Eszenografia eta atrezzoaren operan

Opera bat egiteak zer den ulertzeko, dekoratuak girotzeak dakarren plangintzaz, denboraz eta ahaleginaz jabetu behar dugu. Eszena bakoitzaren atzean, diziplina eta lanbide guztietako profesional asko batzen dira; horien artean, sail artistikoko profesionalak berebiziko garrantzia dute, antzerkian antzeztu den azken produktuari dagokionez. Izan ere, eszenografia, dekoratuen eraikuntza eta/edo girotzea, atrezzoaren hautaketaren bidez, funtsezkoak dira iraganeko garaiak girotzeko: tresneria, jantziak, pintura, makillajea, eszenografia, dekorazioa eta abar behar dira, eta antzezpenerako esparrua prestatu.



Lauko taldetan, informazioa bilatuko dugu, operaren eremu eszenikoarekin lotutako lanbide hauei eta espezialista bakoitzaren zereginei buruz:

LANBIDEA	EZAUGARRIAK
• Eszena-zuzendaritza	
• Atrezzo/tresneria	
• Eszenografia	
• Eszenatokiko burua	
• Errepikatzailea	
• Figurinista	
• Produzizioa	
• Musika-zuzendaritza	

Dokumentatu ahal izateko helbide batzuk:

- [Antzerkiko lanbideak](#)
- [Arte eszenikoen 9 lanbide teknikoak](#)
- [Escenografia eta atrezzo](#)
- [Tresneriaren definizioa](#)

Informazioa bakarka jaso eta dokumentu batean bilduko dute. Taldeko gainerako kideekin partekatuko dute, DRIVEN. Amaitzean, pertsona bakoitzak lanbideetako bat

azalduko die taldeko kideei, labur-labur. Lana koaderno digitalean sartuko da eta ikasgela osoarekin partekatuko da ikasgelako blogean. (4. eta 5. eranskinak)

7. Jarduera. Così fan tutte operaren argumentua, pertsonaiak eta egitura (W.A. Mozart)

Opera ezagutzeko, hasteko, garatzen duen argumentua, pertsonaiak eta egitura formala aztertuko ditugu. Lauko taldetan, honako hauei buruzko informazioa bilatuko dugu:

- Ekintza non eta noiz garatzen den
- Argumentuan zer pertsonaiak hartzen duten parte
- Zer-nolako harremanak sortzen diren haien artean
- Obraren egintzak eta zenbakiak

Eta taula hau osatuko dugu:

LEKUA ETA GARAIA	PERTSONAIAK	HAIEN ARTEKO ERLAZIOAK	EGITURA

Ikasgelako batzarrean, gure iritziak eta bildutako datuak komentatuko ditugu.

8. Jarduera. Zein bertsio gustatzen zaizu gehien?

Orain, operaren zati adierazgarri bat ikusiko dugu, bi bertsio desberdinetan: **Acto I, Amaiera, "Ah, che tutta in un momento"**

[Bertsio 1](#)



[Bertsio 2](#)



Talde handian, ikusitakoari buruzko iritziak komentatuko ditugu.



Inork ezagutzen al zuen eszena hau? Zer desberdintasun dago bi bertsioren artean? Zein gustatu zaigu gehien? Zergatik?

9. Jarduera. Giza ahotsen sailkapena eta ezaugarriak


Giza ahotsa da jaiotzen garenetik daukagun musika-tresna bat. Denok abestu dezakegu, baina ez dago ahotsik beste baten berdina denik. Ahotsak ezaugarri bereziak ditu; batzuk zorrotzagoak dira, eta beste batzuk baxuagoak, ilunagoak edo arinagoak. Beraz, tipo asko daude eta ahots bakoitza bakarra da.

Giza ahotsak sei kategoriatan sailkatzen dira zorrotzetik grabera, hartzen duten hedaduraren arabera, hau da, bakoitzak kantatu ditzakeen noten arabera. Horri *ahots-erregistro* esaten zaio.

Gizonezkoen ahotsak emakumezkoenak baino baxuagoak dira. Gizonezkoen erregistroei, zorrotzetik baxuenera, *tenor*, *baritono* eta *baxu* esaten zaie. Emakumezkoen *soprano*, *mezzosoprano* eta *kontralto* deitzen zaie.

Hona hemen ezaugarri nagusiak:

- **Sopranoa:** emakume-ahotsik zorrotzena, tinbre argi, zorrotz eta distiratsuena.
- **Tenorea:** emakumezkoen soprano-ahotsaren baliokidea gizonezkoengan.



Bular-erresonantzia du. Bi ahotsen hartu ohi dituzte rol nagusiak.

- **Mezzosopranoa** eta **baritonoa:** bitarteko ahotsak, ahots leunak eta beroak dira. Bigarren mailako roletarako erabiltzen dira.



- **Kontraltoa** eta **baxukoa**: ahots grabeenak dira, tinbre ilunagokoak eta arinagoak, baina sakontasun handiagokoak. Ahots larriak bigarren mailako roletarako edo adineko pertsonaietarako gordetzen dira.

Iturria: mariajesusmusica.com (Helbide honetan, giza ahotsen ezaugarriei buruzko informazio gehiago aurkituko dugu).

Mozarten *Requiem*aren hurrengo zatian, **“Tuba mirum”** izenekoan, gizonetzkoen eta emakumezkoen ahotsak identifikatuko ditugu, eta ordenaren arabera sailkatuko ditugu, zorrotzetik baxura.



Jarraian, Mozarten *Così fan tutte* operaren hurrengo zatia entzungo dugu, eta, bakarka, agertzen diren ahotsak entzumenez bereizten saiatuko gara.

Orain, entzun dugun zatia ikusiko dugu, pertsonaiak behar bezala identifikatu ditugun egiaztatzeko. (4. eranskina).

10. Jarduera. Aria



Musika-konposizio bat da, ahots bakarlarri batek kantatzeko modukoa. Opera baten zati nagusia eta garrantzitsua da, eta normalean korurik gabe eta soilik orkestraren laguntzarekin interpretatzen da. Ekintza gelditu egiten da interpreteek abesten duten bitartean. Sentimenduak adierazteko edo obran zehar izandako gertaerak gogora ekartzeko erabiltzen da. Musika-pieza hau bertuosismoaren isla da, bai abeslariena –entzuleak ahotsaren nagusitasunaz eta nolakotasunaz jabe daitezen sortuak baitira–, bai konpositoreena –melodiak sortzeko trebetasuna erakusten duten piezak baitira–. Operako pertsonaia bakoitzak bere ahots-motarako propio sortutako aria bat izaten du.

Aria opera baten funtsezko partetzat hartuko dugu: haren ezaugarriak, haren funtzio espresiboa, eta musikak eta testuak arian duten harremana aztertuko ditugu.

Adibide bat. Has gaitzen soprano-ahotsarentzat den zati bat entzuten, batera testuari jarraituz:

Despina-ren aria **“Una donna a quindici anni”** (*Così fan tutte*), Kathleen Battle sopranoak interpretatua.

Una donna quindici anni

DESPINA Una donna a quindici anni	DESPINA Hamabost urteko emakume batek
--------------------------------------	--



<p>dee saper ogni gran moda, dove il diavolo ha la coda, cosa é bene, e mal cos'è. Dee saper le maliziette che innamorano gli amanti, finger riso, finger pianti, inventar i bei perché. Dee in un momento dar retta a cento, colle pupille parlar con mille. Dar speme a tutti, sien belli o brutti, saper nascondersi senza confondersi, senza arrossire saper mentire, e quaj regina dall'alto soglio col «posso e voglio» farsi ubbidir. (Par ch'abbiam gusto di tal dottrina; viva Despina, che sa servir.)</p>	<p>jakin behar du modan dagoen guztia; non duen deabruak buztana, zer dagoen ondo eta zer dagoen gaizki. Jakin behar du nolako pikardiek maitaleak maitemintzen dituzten, barrearen eta negarraren plantak egiten, eta aitzakia ederrak asmatzen. Jakin behar du une batean ehunka pozik uzten, begi-niniekin milaka lagunekin hitz egiten, guztiei itxaropena ematen, ederrak edo itsusiak izan, nahastu gabe ezkututzen, gezurretan gorritu gabe, eta erregina bat bezala, solio garaitik «Ahal dut eta nahi dut» batekin obeditua izatea lortzea. (Badirudi gustatzen zaiela Doktrina hori; Gora Despina! Zerbitzatzen badaki-eta).</p>
--	--

Hurrengo jarduerari ekin aurretik, irakasleak *dinamika*, *karakter* eta *tempo* kontzeptuak gogoraraziko dizkio ikasgelako taldeari. Ondoren, lauko taldetan, musika eta testua erlazionatuko ditugu aria honetan. Hurrengo taulan, aurreko parametroen arabera bereizi nahi ditugun sekzioak islatuko ditugu, pieza entzuten dugun bitartean. Taldearen ondorioak dokumentu batean jasoko ditugu, zeina DRIVEN partekatuko dugun. Dokumentu hori koaderno digitalera gehituko eta denon artean partekatuko dugu. (4. eta 5. eranskinak)

ATALAK	Dinamika	Karakterra	Tempo

11. Jarduera. Eta zuk, zer deritzozu?

Orain, bi bertsioak kritikoki baloratzeko, aria horren bi interpretazio konparatuko ditugu.

Lauko taldetan, bateratze-lana egingo dugu eta taula honetan jasoko ditugu talde bakoitzaren ondorioak, guztien iritzia errespetatuz.

Azkenik, talde handian ere bateratze-lana egingo dugu. (4. eranskina)



“Una donna a quindici anni” (<i>Così fan tutte</i> . Mozart)	Nota zorrotzak eta larriak abesteko segurtasuna eta argitasuna	Interpretazio dramatikoa
<p>Bertsio 1</p> 		
 <p>Bertsio 2</p>		

12. Jarduera. Nola erlazionatzen gara?

Interneteko helbide hauetan, Mozarten *Così fan tutte* operaren libretoari buruzko informazioa aurkituko dugu:

- [Così fan tutte-ren argumentua \(I\)](#)
- [Così fan tutte-ren argumentua \(II\)](#)

Libretoak garatzen duen argumentua aprobetxatuz, lauko taldean, gure iritzia emango dugu gai hauei buruz eta guk ditugun harreman afektiboak buruz, hitz egiteko txanda eta besteen iritzia errespetatuz.

- Nork ematen du lehengo pausoa du ligatzeko orduan?
- Zergatik uste dute neska batzuek ezin dutela lehengo pausoa eman ligatzeko orduan?
- Zer iritzi dute mutilek gai honi buruz?
- Iritzi ezberdina al dago oraindik ekimena izan ohi duten eta gauza bera egiten duten mutilen aldean asko lotzen duten neskenentzat?

Taldeko kideetako batek ondorioak jasoko ditu, gero gelako taldean partekatuzko. (4. eranskina).



13. Jarduera. Finalea.

Bukaerako ekitaldia –finalea–, oso zati bereizgarria da, batez ere opera buffan. Napolesen XVIII. mendean sortzen den opera komikoa da opera-mota hori. Finalean, pertsonaia nagusiek –eta batzuetan abesbatzak– hartzen dute parte. *Finale* izena du,

ekitaldi bakoitza amaitzeko erabiltzen den pieza delako. Opera buffan, amaiera bat (finale bat) dago obraren ekitaldi bakoitzeko. Garrantzi handiko zatia da, batez ere lehenengo ekitaldikoa. Bertan, tentsio dramatikoak agerian geratzen da; izan ere, «In crescendo» doa, eta amaieran konpontzen den arte garatzen da.



G. Rossiniren *Sevillako bizargina* operaren I. ekitaldiaren finalea entzungo dugu, [Ehi, di casa . buona gente](#), zenbat ahotsek parte hartzen duten bereizteko. Melodia bera den arren, pertsonaiei beren gaia abesten entzungo diegu, banan-banan sartuz.

14. Jarduera. Duetoa

Opera batean ezinbesteko ahots-pieza da duetoa. Dinamismoa ematen du, tentsio emozionala azaltzen du, ahots nagusiak aurrez aurre eta kontrastean jartzen ditu. Ahotsak era askotara konbina daitezkeen arren, ohikoena da bi ahots protagonistek osatzen dutena –sopranoa eta tenorea–, eta, sarritan, topaketa baliatzen dute beren maitasuna adierazteko. Arian ez bezala, duetoak aurrera egiten du ekintza dramatikoan eta testuaren elkarrizketak garatzen ditu. Aitzitik, errexitatiboa –aria artean edo dueto baten aurretik agertzen dena–, hitz mintzatuaren antzeko bakarkako kantu-modu bat da, non abeslariak ahotsaren inflexioak erabiltzen dituen kontatzeko edo hitz egiteko.



Gaetano Donizettiren *L'elisir d'amore* garai guztietako opera antzeztuenetako bat da. Protagonista nagusiak Nemorino tenorea eta Adina sopranoa dira. Opera buffa da: bertan, rol protagonista komikoek tristura edo maitasuna bezalako sentimenduak adierazteko gai dira. Hain zuzen alderdi berritzaile hori ekarri zion Donizettik operaren historiari. Nemorinok elixir magiko bat lortu nahi du maitasuna ager dadin, eta, azkenik, Adinarekin amaitu.

Jarraian, dueto ospetsu bat entzungo dugu, "[Caro elisir! sei mio! esulti pur la barbara](#)". Elkarrizketan protagonista diren sopranoak eta tenoreak beren rola nola txandakatzen dituzten ikusiko dugu. Entzute hori ikasgelako taldean egingo dugu. Guztion artean, hau ezagutzen saiatuko gara:



- Doinu nagusia
- Zenbat aldiz agertzen den kantarien artean banatutako doinua

15. Jarduera. Errezitatiboa

Antzina, pregoilariak gertaera garrantzitsuak edo auzoek bete beharreko arauak errezititzen zituen herriko plazan. Bere ahotsa zen teknologia bakarra. Ahots indartsua izan behar zuen eta ongi proiektatuta, jendeak uler zezan. Pregoa intonatu egiten zen, baina ez zen kantatzen.

Ahots kantatuaren eta ahots mintzatuaren artean dagoenari *errezitatu* esaten zaio: nota-kopuru txiki bat erabiltzen da, hizketaren berezko erritmoa eta sintaxia intonazio jakin batekin nabarmentzeko. Operan *errezitatibo* esaten zaie, eta horietan intonazioz hitz egiten da. Ekintzaren garapenean aurrera egiten da. Errezitaldian garrantzitsuena da oso nota gutxi erabiltzea hitz asko erreproduzitzeko; hori eginez, musika berehala testuaren mende geratzen da.



Errezitatibo bat ezagutuko dugu eta ahots mintzatua, kantatua eta errezitatua bereiziko ditugu. Horretarako, Lélisir [d'amore](#) operaren zati bat entzungo dugu; kantuarekin konbinatuta agertzen da. Tenorearen interpretazio dramatikoari ere erreparatuko diogu, alderdi garrantzitsua baita mezua hobeto ulertu ahal izateko.

Bakarkako lan gisa, galdera hauei erantzungo diegu, ahoz edo idatziz, eta koaderno digitalera igoko ditugu. (5. eranskina)

- Zein da errezitatiboaren eta ariaren arteko aldea?
- Eman zure iritzia errezitatiboaren eta RAP musikaren artean dagoen erlazioari buruz.

Artikulu hau irakurritz informa zaitezke:

["Estilo errezitatibo barrokoak eta rap-ak zerikusia dute?"](#)




16. Jarduera. Opera-antzokiak

Antzokiei buruz hitz egiten dugunean, arte eszenikoaren munduko tenpluren bat datorkigu burura, haren dekorazioa, eszenatokia, arkitektura, emanaldietara joaten den publikoa, etab. Baina



Ba al dakigu nola sortu ziren antzerkiak? Nola eboluzionatu dute denboran zehar? Zein zati daude opera-antzoki batean? Zein dira munduko ospetsuenak? Zer opera-antzoki ditugu Euskal Herrian?

Opera nobleziarentzat gordetako ikuskizun gisa hasi zen, eta jauregietan bere ganbera-konpositoreen obrak antzezten ziren. Lehen antzoki publikoa 1637an ireki zen, Veneziako San Cassianoa. Baina garaiak aldatu egin dira, bai eta antzokien ezaugarriak ere. Izan ere, publikoaren eta gizartearen eskakizunetara eta eskaeretara egokitu behar izan dute. Jarraian, hiru antzoki garrantzitsu bisitatuko ditugu birtualki:

<p><u>Royal Opera House</u> (Londres)</p> 	<p><u>Teatro del Gran Liceo</u> (Bartzelona)</p> 	<p><u>Sidney Opera House</u> (Australia)</p> 
--	--	---

Opera-antzokien garrantzia ulertzeko, alderdi hauek aztertuko ditugu:

- Nola sortu ziren lehen antzerkiak
- Zer ezaugarri izan behar dituen opera-antzerki batek: haren forma eta dituen zatiak
- Munduko antzoki garrantzitsuenak
- Opera-antzokiak Euskal Autonomia Erkidegoan
- Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren ekitaldi garrantzitsuenak

Lauko taldetan, informazioa bilatu, ordenatu eta digitalizazio-gelan poster digital bat egingo dugu. Talde bakoitzaren posterra gelako blogean partekatuko da. Hona hemen informazioa biltzeko esteka batzuk: (4. eta 7. eranskinak).

- [Gau bat operan: munduko antzoki onenak](#)
- [Operaren antzokiak](#)
- [Munduko antzoki garrantzitsuenak](#)
- [Opera antzokien historia laburra](#)



17. Jarduera. Debatea. Eta zu, zeren alde zaude?

Bidaia bat egin dugu operaren historian zehar. Hau guztia ezagutuko dugu: haren egitura, osatzen duten zati garrantzitsuenak, giza ahotsen ezaugarriak, eta arte eszenikoarekin lotutako lanbideak. Gainera, birtualki munduko antzoki ospetsuenetako batzuk bisitatu ditugu. Horrez gain, testuaren eta musikaren arteko harremana aztertu, zati adierazgarriak entzun eta horri guztiari buruz eztabaidatu eta arrazoitu dugu.



Solasaldi bat antolatzeko, ikasgaia dugu. Solasaldi horretan, besteen iritziekiko errespetuz eta modu kritikoan hitz egingo dugu genero-estereotipoez eta operako gizarte-konbentzioez; halaber, XVIII. eta XIX. mendeetako gizartean emakumeak duen paperaz arituko gara eta gaur egun duen egoerarekin konparatuko dugu.

Gaiaren aurkezpena

Hartu dezagun Mozarten *Così fan tutte* opera adibide gisa.

XIX. mendeko publikoak uko egin zion obrari, ez baitzuen ulertzen nola jarri zion Mozartek hain musika ederra hain libreto bitxiari: bi gazte harrotu egiten dira, beren emaztegaiak leialak diren lagun helduago baten aurrean. Bi emakumeak leial izatetik desleial izatera eta berriz ere leial izatera igarotzen dira egun bakar batean. Operaren amaieran adiskidetasuna berregiten saiatzen dira, eta egoera hori ez zen gizartean onartzeko erraza, garai hartako konbentzioen arabera. *Così fan tutte* moralgabetzat eta barregarritzat jo zen, baina Mozarten musika bikainagatik historiara pasatu da.

Desleialtasunak eta genero-estereotipoek belaunaldietan iraun dute, eta bere hartan diraute gaur eguneko errealitatean ere. Gizarteak onartutako konbentzioek neska gazte batek jakin behar zuenari egiten diote erreferentzia. Adibidez, barre eta negar egiteko itxura egitea, gezurretan eta aitzakiatan ibiltzen jakitea, gizonezkoei itxaropenak ematea, etab. Gaur egun, hori guztia zaharkitua iruditu dakiguke, baina esan al genezake hori guztia gaur egun ez dagoela presente, esaterako, musikan, zineman edo artean?

Eztabaida prestatu ahal izateko, lauko taldetan, egin dezagun gogoeta labur, gaiaren aurrean jarrera hartzeko, galderak sortzen joateko, eta hausnarketa kritikoa eta irizitrukea eragingo duen gidoi bat egiteko. Talde handian, talde bakoitzaren ondorioak bateratuko dira. (4. eranskina).



Polemika pizteko galderak	Talde bakoitzaren ondorioak
Opera honen finalean gizonek barkamen eskatzen diete beren emazteei, baina emakumeek barkatuko al diete horrelako egoera batean? XVIII. mendearen amaieran ez zen aukera hori aintzat hartzen; gaur egun, berriz, zer gertatuko zen?	
Nola definitzen dira gaur egungo gizonen eta emakumeen rola, XVIII. mendean ikusten ditugunekin alderatuta? Aurkitu al ditzakegu oraindik XVIII. mendeko rol horiek gure gizartean?	
Operaren amaieran hasierako ordena berreskuratzen dela dirudi, baina itxurek engainatu egiten dute; badago lehenagoko bat eta geroagoko bat: ahaztu al dezakete beste emakume bat gorteatzen gozatu zuten gizonek?, posible al da bikote-harremanean ez jakitea zein diren sentimenduak maitasun-esperientzia berri bat aurkitu ondoren?	
Emakumearen posizioa XVIII. mendeko gizartean. Garai hartan, garrantzitsua al zen maitasunagatik ezkontzea? Zergatik?	

18. Jarduera. Debaterako gaiak



Testuinguru horretan, **maitasun erromantikoari** lotutako estereotipoak eta mitoak (“laranja erdia” edo “maitasunak dena ahal du”, esaterako) maitasunaren pertzepzio baten barruan kokatu ditzakegu, gauza guztiak onar ditzakeen maitasunaren pertzepzioaren barruan, alegia.

Hausnar dezagun orain, lauuko taldetan, gure gizartean zer gertatzen den, eta alderatu ditzagun garai hartako bikote-harremanak eta gure garaikoak.

Datuak biltzeko taula. Taldean, eztabaidarako beste gai batzuk ere proposa ditzakegu:



Posible al da leiala izatea bikote-harreman batean, edo egoeraren araberakoa da?	
Aldeko argudioak	Kontrako argudioak
Zer hobetu dugu ordutik?	
Bi garaien abantailak	Bi garaien desabantailak
Gizarte-klaseen eta prestakuntza-klaseen arteko aldeak eragotzi al dezake bi pertsonak elkar maitatzea?	
Aldeko argudioak	Kontrako argudioak

Debatea polemikoa eta arina izan dadin, aurrez landutako informazioa eskura izan beharko dugu, beste egoera historiko batzuekin konparatzeko. Horrela, gure lankidetzalana indartuko dugu, bai eta argudiatzeko dugun gaitasuna eta bizitzaren alderdi garrantzitsuen aurrean dugun kontzientzia kritikoa ere. Sortzen diren ideia guztiak onartu behar ditugu, eta aniztasunarekiko enpatiaz eta tolerantziaz jokatu.

Hurrengo esteketan, gure eztabaidaren zatiak ondo prestatzeko materiala aurkituko dugu. (4. eranskina)

- [Ikasgelan eztabaida bat egiteko urratsak](#)
- [Nola prestatu eztabaida bat ikasgelan?](#)



19. Jarduera. Lan-gidoia definitzea

Taldeka, eztabaidatu beharreko gaia aurkeztu dugu eta hari buruz hausnartu: polemika pizteko galdera posibleei buruzko ondorioak atera ditugu. Orain, denborak planifikatu behar ditugu, eta azken jarduera egitera eramango gaituen lana garatu.



Lauko taldetan egingo dugu lan. Talde bakoitzak erantzukizun batzuk hartu beharko ditu bere gain. Ataza bakoitzaren arduradunak izendatuko ditugu (4. eranskina). Horretarako, ondoko taula hau erabiliko dugu.

GARATU BEHARREKO ZEREGINAK	Arduraduna
Eztabaidazalea	
Ikasgela prestatzea eta hezkuntza-komunitateari debatearen berri ematea	
Jarduera eta tresna digitalak koordinatzea	
Debatearen eta azken ebaluazioaren ondorioak biltzea	

20. Jarduera. Zereginak banatzea eta gure artean koordinatzea

Saioa amaitu aurretik, talde bakoitzak talde handira eramango du egindako zereginen banaketa, eta denek bozkatuko dute eztabaidaren moderatzailea izendatzeko.

Eztabaidazale izendatutako pertsonen artean banatuko dira eztabaidatu beharreko jarreraren aldeko eta kontrako rolak, bai eta zereginen denboralizazioa eta talde bakoitzeko arduradunen arteko koordinazioa ere.

Teknologia eta Digitalizazioko klasean saioa emititzearekin lotutako alderdiak abiaraziko dira.

Eztabaidaren faseen eta arduradunen laburpen-taula, hemen:

ZEREGINAK	Talde arduraduna	Koordinazioa eta denboralizazioa
Debatea moderatzea		
Eszenatokiaren prestatzea eta hedapena		
Koordinazio digitala		
Ondorioak		

21. Jarduera. Debatea

Jarduera institutuko areto nagusian egingo da eta eskola-komunitate osoa parte hartzera gonbidatua egongo da.



22. Jarduera. Egindako lana baloratzea eta ondorioak ateratzea

Eztabaidaren gorabeherak eta ondorioak jasotzeko ardura duten pertsonak taldekideekin batera jarriko dira. Ondoren, balorazio bat egingo dugu talde handian. Eztabaidan laburpen-taula hau erabiliko dugu: (4. eta 8. eranskinak)

ZEREGINAK	Alde positiboak	Zer hobetu genezake?
Moderatzea		
Eszenatokiaren prestaketa eta hedapena		
Koordinazio digitala		
Hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea		
Portaera-arauak errespetatzea		
Beste batzuk...		

23. Jarduera. Bakarkako ebaluazioa

Ikasle bakoitzak ahoz edo idatziz egindako lanari buruzko ondorioak idatziko ditu, bai eta balorazio pertsonala ere, eta koaderno digitalean sartuko ditu:

- Egindako debatarei buruzko balorazioa eta iritzi pertsonala
- Autoebaluazioa: nire parte-hartzea lantaldean, nire lan pertsonala, eta nire jarrera eta portaera
- Zer da ikas-sekuentzia honetan ikasi dudak garrantzitsuena?



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Oihalaren atzean

ERANSKINAK



1. eranskina. Gelako batzarraren behaketa-eskala (irakaslea)

GELA:	DATA:
--------------	--------------

Portagarria behargarria	BAI	BATZUETAN	IA BETI	EZ	OHARRAK
Ikasle guztiek hartzen dute parte batzarrean.					
Aktiboki entzuten diote elkarri.					
Besteen iritziak onartzen dituzte.					
Beren ideiak eta iritziak argudiatzen dituzte.					
Gatazkak eta arazoak esplizitu bihurtzen dituzte, eta irtenbide posibleak proposatzen eta horri buruzko erabakiak hartzen dituzte.					
Tolerantzia, errespetu eta tratu oneko giroa eragiten dute.					
Hasieratik bukaerara arte, ezarritako arauak errespetatzen dituzte.					
Hizkuntza egokia erabiltzen dute.					
Bilkura amaitu aurretik, ondorioak eta hartutako erabakiak bateratzen dituzte.					

2. eranskina. Denbora-lerro bat egitea. Ebaluatzeko errubrika

KATEGORIA	Bikain: 4	Ondo: 3	Hobetu daiteke: 2	Eskas: 2
Datak	Ekitaldi bakoitzerako data zehatza eta osoa sartu da.	Ekitaldi guztietarako data zehatza eta osoa sartu da.	Ekitaldi guztietarako data zehatza jarri da.	Datak okerrak dira eta/edo ekitaldi batzuk falta dira.
Edukia/ Gertaerak	Gertaerak beharrezkoak dira ekitaldi guztietarako.	Gertaerak beharrezkoak dira ekitaldi guztietarako.	Gertaerak beharrezkoak dira ekitaldi gehienetarako.	Askotan gertaerak okerrak dira gertaeretarako.
Baliabideak	Denbora-lerroak gaiarekin lotutako 8-10 gertaera ditu gutxienez.	Denbora-lerroak gaiarekin lotutako 6-7 gertaera biltzen ditu gutxienez.	Denbora-lerroak gaiarekin lotutako 5 gertaera ditu gutxienez.	Denbora-lerroak 5 gertaera baino gutxiago ditu.
Tresna digitalaren erabilera	Ikasleak badaki nola erabili, eta funtzio jakin batzuk egiteko moduari buruzko ia galdera guztiei erantzun diezaike.	Ikasleak badaki nola erabili, eta funtzio jakin batzuk egiteko moduari buruzko galdera askori erantzun diezaike.	Ikasleak badaki tresnaren zati batzuk nola erabili, eta funtzio jakin batzuk egiteko moduari buruzko galdera batzuei erantzun diezaike.	Ikasleak ez daki nola erabili laguntzarik gabe.



3. eranskina. Talde kooperatiboaren lan-prozesuak ebaluatzeko KONTROL-ORRIA
(Irakaslea)

IZENA:	DATA:
--------	-------

Taldea: Ataza:	Koordinatzailea				Idazkaria				Bozeramailea				Kudeatzailea			
	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4	1	2	3	4
LORPEN-ADIERAZLEAK																
Taldean aktiboki hartzen du parte.																
Ekimena erakusten du eta zeregina lortzeko proposamenak egiten ditu.																
Bere rolari esleitutako zereginak egiten ahalegintzen da.																
Besteen iritziak eta ideiak onartzen ditu.																
Gainerako taldekideekin errespetuz jokatzeko du.																
Bakarkako lana ezarritako datetan entregatzen du.																
Hizkuntza egokia erabiltzen du.																
Taldeko gainerakoei beren helburuak lortzen laguntzen die.																
0 (ez da lortu) 1 (oso gutxi lortu da) 2 (lortua) 3 (oso lortua)																



4. eranskina. Talde kooperatiboaren lan-prozesuak ebaluatzeko KONTROL-ORRIA
(Ikasleak)

IZENA:		DATA:			
AUTOEBALUAZIOA	BAI	BATZUETAN	IA BETI	EZ	OHARRAK
Aktiboki hartu dut parte.					
Ataza lortzeko proposamenak egin ditut.					
Nire rolari esleitutako zereginak egiten ahalegindu naiz.					
Besteen iritziak eta ideiak onartu ditut.					
Errespetuz jokatu dut gainerako taldekideekin.					
Bakarkako lana ezarritako egunetan entregatu dut.					
Hizkuntza egokia erabili dut.					
Taldeko gainerakoei beren helburuak lortzen lagundu diet.					



5. eranskina. Koaderno digitala ebaluatzeko errubrika

KATEGORIA	Bikain: 4	Ondo: 3	Hobetu daiteke: 2	Eskas: 1
Aurkezpena eta diseinua	Diseinua eta aurkezpena oso ondo zainduta daude eta erraz eskuratu daiteke informazioa. Baliabide guztiak erabili dira: testu-fitxategiak, irudiak, estekak eta bideoak.	Diseinua eta aurkezpena zainduta daude, baina informazioa ez dago ondo antolatuta. Gutxienez hiru baliabide erabili dira: testu-fitxategiak, irudiak, estekak edo bideoak.	Diseinua eta aurkezpena ez daude behar bezala zainduta, eta zaila da informazioa eskuratzea. Baliabide hauetako bi, gutxienez, erabili dira: testu-fitxategiak, irudiak, estekak edo bideoak.	Diseinua eta aurkezpena axolagabeak dira eta informazioa desantolatua dago. Beti baliabide bera erabili da.
Antolakuntza eta edukiak	Egindako lanaren ebidentzia guztiak jasotzen dira, modu eraginkorren, ordenatuan eta osoan. Autoebaluazioa egiten du, aurkitutako zailtasunei buruz hausnartzen du eta hobetzeko proposamenak egiten ditu.	Egindako lanaren ebidentzia ia guztiak modu eraginkor, ordenatu eta osoan jasotzen dira. Autoebaluazioa egiten du, aurkitutako zailtasunei buruzko gogoeta partziala egiten du eta hobetzeko proposamenak egiten ditu.	Egindako lanaren ebidentzia batzuk jasotzen dira, eta ez daude modu eraginkorren, ordenatuan eta osoan antolatuta. Autoebaluazioa egiten du, aurkitutako zailtasunez azaletik hausnartzen du, baina ez du hobetzeko proposamenik egiten.	Egindako lanaren ebidentziak ez dira jasotzen. Ez du autoebaluazioa egiten.
Hizkuntzaren erabilera	Ez da ez sintaxi- ez ortografia-akatsik antzeman. Askotariko hizkuntza-egiturak erabiltzen dira. Ahozko hizkuntzaren arauak behar bezala betetzen dira. Hizkera ez-sexista erabiltzen da.	Akats sintaktiko edo ortografiko gutxi daude, mezuak ulertzea eragozten ez dutenak. Ahozko hizkuntzaren arauak behar bezala betetzen dira. Hizkera ez-sexista erabiltzen da.	Akats sintaktiko edo ortografiko gutxi dago, eta egitura linguistiko gutxi. Ahozko hizkuntzaren arauak nahiko ondo betetzen dira. Hizkera ez-sexista erabiltzen da.	Akats sintaktiko edo ortografiko asko daude, eta askotariko egitura linguistikoak falta dira. Ahozko hizkuntzaren arauak ez dira errespetatzen. Hizkera sexistaren erabilera detektatzen da. Hizkera ez-sexista erabiltzen da.
IKTen erabilpena	IKTak oso ondo erabili dituzte eta lortutako lanaren emaitza oso kalitate onekoa da.	IKTak ondo erabili dituzte eta lortutako lanaren emaitza oso kalitate onekoa da.	IKTak ondo erabili dituzte eta lortutako lanaren emaitza kalitate onekoa da.	IKTak ez dituzte ondo erabili eta lortutako lanaren emaitza ez da oso kalitate onekoa.
Entregatzeko datak	Beti errespetatu ditu entregatzeko epeak.	Ia beti errespetatu ditu entregatzeko epeak.	Oso gutxitan errespetatu ditu entregatzeko epeak.	Ez ditu entregatzeko epeak errespetatu.
Oharrak:				



6. eranskina. Argudio-testu baten idazketa ebaluatzeko errubrika

KATEGORIA	Bikain: 5	Oso ondo: 4	Ondo: 3	Hobetu daiteke 2	Eskas: 0/1
Iritzi pertsonala adieraztea	Bere iritzi pertsonala mantentzen du landutako gaiaren alderdi nagusiei, baliozko konparazioei eta testuaren helburuarekin egokiak diren adibideei buruz.	Bere iritzi pertsonala mantentzen du, landutako gaiaren alderdi nagusiei eta testuaren xedearrekiko egokiak diren adibide batzuei buruz.	Bere iritzi pertsonala ideia nagusietako batean eta adibide erraz batzuetan oinarritzen du.	Bere iritzi pertsonalari eusten dio, ideia zentraletan edo adibideetan oinarritu gabe.	Iritzi pertsonala du, landutako gaiaren edukiekin inolako loturarik ezarri gabe.
Argitasuna eta koherentzia	Argi eta koherentziaz idazten du, zuzentzaile logikoen eta erreferentzien erabilera zuzenari eta askotarikoari esker.	Argi eta koherentziaz idazten du, zuzentzaile logikoak eta erreferentziak zuzen eta erraz erabiliz.	Argi eta koherentziaz idazten du, zuzentzaile logikoak eta erreferentziak zuzen baina aldi baterako erabiliz.	Argi eta koherentziaz idazten du, baina perpaus sinpleak eta erredundanteak erabiliz.	Modu inkohorentean idazten du, hainbat termino oker erabiltzen direlako.
Edukien laburpena	Hizkuntzaren ekonomia agerian uzten du, gaiarekin zerikusia duten eta modu zehatzean eta hierarkia egokian aurkezten diren ideia ugari sartzen baititu.	Hizkuntzaren ekonomia agerian uzten du, gaiarekin zerikusia duten eta zehatzasunez aurkeztu diren ideia ugari sartzen baititu.	Hizkuntzaren nolabaiteko ekonomia erakusten du, gaiarekin zerikusia duten eta modu zehatzean aurkezten diren beharrezko ideia-kopuru bat sartzen baititu.	Hizkuntzaren ekonomia lausoa erakusten du, gaiarekin zerikusia duten eta modu erredundantean edo zehatzasun gutxiarekin aurkezten diren ideia kopuru apal bat sartzen baititu.	Ikasteko gaiarekin zerikusirik ez duten edo garrantzirik ez duten edukiak eskaintzen ditu.
Hizkuntzaren erabilpena	Bere idazketa egitura-lerrokadura egokietan, ezarritako hedaduran eta testu osoan zehar hizkuntzaren araudiaren errespetu zentzudunean mantentzen du.	Testuaren zati handi batean egitura-lerrokatze egokietan, ezarritako hedaduran eta hizkuntzaren araudiaren errespetu zentzudunean oinarritzen da.	Testuaren zati handi batean egitura-lerrokatze egokietan eta hizkuntzaren araudiaren erabileran oinarritzen da.	Egiturazko lerrokadurei edo hizkuntzaren araudiaren erabilerari arreta gutxi jarrita idazten du.	Idatzi hizkuntzaren araudiaren logikaz, hedapenez edo zaintzaz inolako ardurarik gabe.

7. eranskina. Poster digital baten errealizazioa ebaluatzeko errubrika

KATEGORIA	Bikain: 4	Ondo: 3	Hobetu daiteke: 2	Eskas: 1
Titulua	Izenburua egokia, irudimentsua eta koherentea da gaiarekin.	Izenburua bat dator gaiarekin.	Izenburua ez dator bat gaiarekin.	Izenburua ez da oso egokia eta ez du loturarik gaiarekin.
Edukia	Sinbolo bakoitzaren azalpena eta informazioa zabaltzeko estekak daude.	Sinboloen azalpen bat dago, baina ez dago informazio gehiago lortzeko estekarik.	Sinboloen azalpenak okerrak dira. Ez dago zabaltzeko estekarik.	Sinboloak eta azalpenak falta dira. Ez dago zabaltzeko estekarik.
Antolaketa bisuala	Erakargarria eta originala da. Edukiarekiko irudi egokiak. Azalpen-bideoak txertatu ditu. Informazioa oso ondo antolatuta dago, oso argia da eta irakurtzeko erraza.	Egokia da. Irudiak edukira egokitzen dira. Azalpen-bideo batzuk txertatu ditu. Informazioa argia da eta ondo antolatuta dago.	Ez da oso erakargarria. Irudi batzuk ez dira oso egokiak edukiarekin lotzeko. Ez dago azalpen-bideorik. Informazioaren antolaketa ez da oso argia.	Ez da oso erakargarria. Irudien eta edukiaren artean ez dago lotura handirik. Ez dago azalpen-bideorik. Informazioa desordenatuta dago eta argitasun faltak irakurtzea zailtzen du.
Tresna digitalaren erabilera	Tresna erabiltzeko hainbat aukera aztertu ditu. Badaki multimedia-elementuak txertatzen. Gorde du lana eta lortu du edateko kodea.	Tresna behar bezala arakatu du. Badaki multimedia-elementu batzuk txertatzen. Gorde du lana eta lortu du edateko kodea.	Erreminta gutxi arakatu du. Badaki multimedia-elementu batzuk txertatzen. Gorde du lana, baina ez daki kodea lortzen.	Ez ditu tresnaren aukerak aztertu. Ez daki multimedia-elementuak txertatzen. Laguntza behar du lana gordetzeko eta edateko kodea lortzeko.



8. eranskina. Debatea ebaluatzeko errubrika

KATEGORIA	Bikain: 5	Ondo: 4	Nahikoa: 3	Hobetu daiteke: 2	Eskas: 1	Oharrak
Argumentazioa	Argudio guztiak garrantzitsuak eta zehatzak izan dira.	Argudio gehienak garrantzitsuak eta zehatzak izan dira.	Argudio gehienak garrantzitsuak eta zehatzak izan dira, baina batzuk ez dira oso sinesgarriak izan.	Argudio batzuk garrantzitsuak eta zehatzak izan dira.	Argudioak ez dira zehatzak eta/edo garrantzitsuak izan.	
Gaiaren ulermena	Gaia sakon ulertu da eta modu sinesgarrian aurkeztu da.	Gaia sakon ulertu da, baina ez da modu sinesgarrian aurkeztu.	Gaiaren alderdi garrantzitsuenak ulertzeko informazioa aurkeztu du.	Ez dira gaiaren alderdi garrantzitsuenak ulertu.	Ez da frogatu gaia ulertu denik.	
Baliabideak eta ICTak erabiltzea	Alderdi garrantzitsuena gertakari garrantzitsuetan, adibideetan eta ICTen erabilera oso onean oinarrituta egin dira.	Alderdi garrantzitsuenak gertakari garrantzitsuetan, adibide batzuetan eta ICTen erabilera egokian oinarritu dira.	Alderdi garrantzitsuenak gertakari garrantzitsuetan oinarritu dira, ICTen erabilera egokia eginez baina adibiderik gabe.	Alderdi garrantzitsuenak ez dira oinarritu ez gertakari garrantzitsuetan, ez adibideetan. ICTen erabilera oso oinarritzkoa izan da.	Alderdi garrantzitsuenak ez dute gertakari garrantzitsurik, ezta adibiderik ere. Ez dira ICTak erabili.	
Informazioa	Informazio guztia argia eta zehatza eta koherentea izan da.	Informazio gehiena argia, zehatza eta koherentea izan da.	Eztabaidako informazio gehiena argia eta zehatza izan da, baina ez beti koherentea.	Eztabaidako informazio gehiena modu argi eta zehatzean aurkeztu zen, baina ez zen beti koherentea izan.	Informazioak hainbat akats ditu; ez da beti argia izan.	
Aurkezpenaren estiloa	Keinuak, ikusizko kontaktua, ahots-tonua erabili ditu eta entzuleen arretari eusteko moduko adorea erabili ditu.	la beti keinuak, ikusizko kontaktua, ahots-tonua eta entzuleen arretari eusteko modukoari adorea erabili izan dira.	Batzuetan keinuak, ikusizko kontaktua, ahots-tonua eta entzuleen arretari eusteko moduko adorea erabili dira.	Gutxitan erabili dira keinuak, ikusizko kontaktua, ahots-tonua eta entzuleen arretari eusteko moduko adorea.	Ez da mantendu entzuleen arreta.	



Antolakuntza	Argudio guztiak ideia nagusi bati lotu zaizkio eta modu logikoan antolatu dira.	Argudio gehienak ideia nagusi bati lotu zaizkio eta modu logikoan antolatu dira.	Argumentu gehienak ideia nagusi bati lotu zaizkio, baina batzuetan antolaketa ez da ez argia ez logikoa izan.	Argudioek ez dute lotura argirik izan ideia nagusi batekin.	Argudioak ez dira ideia nagusi bati lotuta egon.	
Jarrera	Argudioak aurkeztu ditu eta besteen iritziak modu ordenatuan errespetatu ditu.	Argudioak aurkeztu ditu eta besteen iritziak errespetatu ditu, ez beti modu ordenatuan.	Argudioak aurkeztu dira, baina besteen iritziak ez dira beti modu ordenatuan errespetatu.	Argudio gutxi aurkeztu dira, eta iritziak ez dira beti modu ordenatuan errespetatu.	Argudiatzean ez da akordiorik lortu eta iritziak ez dira modu ordenatuan errespetatu.	



9. eranskina. Talde kooperatiboaren lanaren koebaluzioa eta autoebaluzioa egiteko errubrika

TALDEA:	IKASGELA:
----------------	------------------

KATEGORIA	Bikain: 4	Ondo: 3	Nahikoa: 2	Hobetu daiteke: 1
Jarrera	Talde-lanarekiko eta zereginetikiko positiboa da beti. Arazoei irtenbideak eta proposamenak bilatzen dizkie.	la beti talde-lanarekiko eta zereginetikiko positiboa da.	Batzuetan positiboa da. Ez die beti taldearen baldintzei eta zereginei erantzuten.	Besteen lana kritikatzan du maiz jendaurrean. Taldearen baldintzei eta zereginei egozten dizkie gabeziak.
Talde-lana	Asertiboki entzuten du eta besteen ahalegina babesten du. Taldea lotuta mantentzen du.	la beti entzuten eta laguntzen dio besteen ahaleginari. Ez du gatazkarik sortzen taldean.	Batzuetan besteen ahalegina onartzen eta babesten du. Oso gutxi laguntzen du taldearen zereginetan.	la inoiz ez du inoren ahalegina onartzen eta babesten. Ez du taldearen zereginetan laguntzen.
Rolak	Taldean duen rola eraginkortasunez hartzen du. Aktiboki parte hartzen du taldearen zereginetan.	Taldean duen rola bere gain hartzen du eta besteen rola definitzen laguntzen du. Behar bezala negoziatzen du taldean.	Taldeak zehazten duen rola hartzen du.	Ez du dagokion rola betetzen, eta ez du konpromisorik hartzen taldearen zereginekin.
Partaidetza	Taldeko eztabaidetan ekarpen garrantzitsuak egiten ditu beti.	la beti ekarpen garrantzitsuak egiten ditu taldeko eztabaidetan.	Batzuetan, taldeko eztabaidetan ekarpenak egiten ditu, eta eskatzen zaiona egitera mugatzen da.	la inoiz ez du ekarpenik egiten taldearen eztabaidetan, eta ez du parte hartzen erabakiak hartzean.
Denboraren erabilera	Ondo antolatzen da beti denbora erabiltzeko, eta egunean bertan betetzen ditu bere zereginak.	Ondo antolatzen da denbora erabiltzeko, eta, salbuespenak salbuespen, egunean bertan betetzen ditu bere zereginak, eta ez ditu gainerako taldekideen zereginak atzeratzen.	Batzuetan atzeratu egiten da bere zereginak egiteko orduan, baina epe barruan entregatzen ditu eta taldeko gainerako kideen denbora errespetatzen du.	Denbora arduragabe erabiltzen du, eta taldeak bere zereginak bere gain hartu behar ditu.



Izenburuko kategorietatik abiatuta, taldeko kideen lana ebaluatzea eta norberak autoebaluazioa egitea.

Ikaslea:	Jarrera (1 a 4)	Talde lana (1 a 4)	Rolak (1 a 4)	Partaidetza (1 a 4)	Denboraren erabilera (1 a 4)
Autoebaluazioa:					
Talde 1					
Talde 2					
Talde 3					
Talde 4					
Oharrak:					